




OOME

Ongezate eta osasun mentalarako enpresa



ENPRESABURUAK

Irene Aristi
Ane Aranoa
Yves Gondan
Ane Melchor



ONLINEKO PSIKOLOGIA ZERBITZUA

OOME

(Ongizate eta osasun mentalarako enpresa)

AURKIBIDEA:

BALIO PROPOSAMENA	4
MERKATUAREN SEGMENTAZIOA: BEZEROAK	5
FUNTZEZKO SOZIJETATEAK	7
DIRU-SARRERAK	8
KANALAK	9
BEZEROEKIN HARREMANAK	10
FUNTSEZKO BALIABIDEAK	11
FUNTSEZKO JARDUERAK	13
KOSTUAK	14



O.GURE IDEIA:

Gu (Ane, Yves, Irene eta Ane) OOME gara, ongizate eta osasun mentalerako enpresa, eta ekonomiari dagokionez zailtasunak dituzten edo psikologo pribatuak ordaintzeko dirua ez duen jendeari zuzenduta dagoen enpresa gara. Gure logoak, ikusten den moduan, osasun mentalean zentratzen garela erakusteko, garun baten irudia txertatzea erabaki dugu.

Hare gehiago, aplikazio hau estatuak emandako osasun mentaleko arazoak konpontzeko laguntza zerbitzuak nahikoak ez direla ikusterakoan, proiektua aurrera eramateko behar genuen bultzada eta aukera ikusi genuen, gizartean existitzen den eskasia hau asetzeko.

Enpresaren izenari dagokionez, lehen aipatu dugun bezala, OOME, ongizate eta osasun mentalerako enpresa du izena. Izenaren sorrera gure enpresaren ideiarekin batera etorri zen, tituluak argi definitzen baitu gure helburua.

Horrekin batera, eslogan egoki bat sortu dugu osasun mentala guztiontzako dela aditzera emateko, eta diru asko duen jendearentzat bakarrik ez dela ulertarazteko . Beraz, esaldi hau aukeratu dugu: "Osasun mentala denontzat da".

Funtzionamenduari dagokionez, mekanismo erraz bat izatea erabaki dugu, teknologian esperientzia duten nahiz ez duten pertsona guztiek gure zerbitzuez goza dezaten. Lehenik eta behin, gure aplikazioa erabili nahi duen edonork google play edo playstore bidez deskargatu beharko du aplikazioa, eta lehen urratsa egin ondoren, bertan erregistratu beharko du. Zure izena eman ondoren, test bat bete beharko duzu zure arazoaren eremuan espezializatutako psikologo egokiarekin harremanetan jartzeko. Testa egin eta aztertu ondoren, psikologoaren profil desberdinetako hainbat aukera emango zaizkizu, eta haien profilak, hauen esperientzia, jarraitzaileak eta balorazioak eskura izango dituzu, zure kasurako egokiena iruditzen zaizun pertsona aukeratu ahal izateko. Aukera amaitutzat joz, aukeratutako pertsonarekin harremanetan jarri beharko zara eta zuen artean ordutegiak ezarri beharko dituzu. Solasaldi hau bideo-dei bidez izan ahalko duzu edo idatziz, pertsona ezezagunekin kontaktua edukitzearen beldurra duten pertsonak kontuan izan ditugulako, bai antsietate sozialagatik, bai lotsatia izateagatik, etab.

Bestalde, aukeratutako psikologoarekin bat egiten ez baduzu, beti uko egin ahal izango diezu bere zerbitzuei ,eta beste baten zerbitzuekin hasi, bakoitzaren erosotasuna funtsezkoa baita tratatu mota hauetarako.